

Ahuntzen kanta

Jendea ilaretan zegoen, bere istorioak kontatzeko zain. Polizia jendetza antolatzen zebilen, eta irratiauren aurreko kale nagusia itxita zegoen trafikoari. Lapurñoak eta zigarro saltzaile ibiltariak tartean zebiltzan hara eta hona. Jendea izututa zegoen, terroristaren bat jendetzan infiltratuko ote zen eta istorio haiek guztiak haragi eta suzko ahia bihurtu.

Memoria Irratia diktadorea jausi zenean sortua zen. Hasieratik dokumentalerantz lerratutako programazioa eduki zuen, albistegirik eta kanturik gabe, bakarrik herrialdearen iraganean aztarrika egiten zuten dokumentalak eta saioak. Irratia famatu egin zen iragarri zutenean programa berri bat grabatuko zutela, *Beren istorioak beren ahotsean* izenekoa. Herrialdeko bazter guztietatik etorritako jende saldoak batu ziren hedabidearen inguruan. Ideia sinplea zen: istoriorik onenak aukeratzea eta bizi izan zituztenek kontatutako moduan grabatzea baina haien benetako izenak aipatu barik; gero entzuleek hiru istoriorik onenak aukeratuko zituzten, eta horiek sari baliotsuak irabaziko zituzten.

Lortu nuen eskari orria betetzea baina lan handiak izan nituen irratira sartzeko. Ika-mika bat baino gehiago sortu zen jende masagatik. Zahar eta gazte, nerabe, funtzionario, ikasle eta langabetu, denak etorriak ziren beren istorioak kontatzera. Lau ordu baino gehiago eman genituen euripean zain. Batzuk apal geunden, beste batzuk aho betez zebiltzan beren istorioez. Gizon bat ikusi nuen, besorik gabea eta ia gerrirainoko bizarra zuena. Pentsamenduetan murgilduta zegoen, estatua greko hondatu baten gisan. Ohartu nintzen berarekin zegoen mutil ederraren ezinegonaz. Hirurogeita

hamarreko hamarkadan Baath Alderdiaren ziegetan torturatua izandako komunista batek esan zidanez, bizardunaren istorioak irabazteko aukera handiak zeuzkan, baina gizona bera ez ei zen etorri irabaztera. Zoro bat baino ez zen, baina harekin zegoenak, haren senidea zenak, saria gutiziatzen zuen. Bizarduna irakaslea zen eta egun batean poliziarengana joana zen salatzeraz bere auzoko bat Museo Nazionaletik ostutako antigoaleko piezak saltzen zebilela. Poliziak eskerrak eman zizkion laguntzeagatik. Irakaslea, kontzientzia arinduta, eskolara itzuli zen. Poliziak txosten bat bidali zuen Defentsa Ministeriora, esanez irakaslearen etxea Al-Qaedaren ezkutaleku bat zela. Polizia elkar hartuta zegoen antigoaleko piezen trafikatzailerekin. Defentsa Ministerioak txostena bidali zion armada estatubatuarrari eta haiek irakaslearen etxea bonbardatu zuten helikopterotik. Gizonaren emaztea, lau seme-alabak eta ama zaharra hil zituzten. Irakasleak bizia salbatu zuen, baina kalteak izan zituen burmuinean eta besoak galdu zituen.

Nik neuk hoge istoriotik gora neuzkan buruan pilotuta, Iranen preso egondako urte luzeetakoak. Ziur nengoen gutxienez haietako bat garaiezina izango zela lehiaketan.

Lehiatzaileen lehen labekada sartu zen eta gure atzean geratutako jendetzari iragarri zioten egun horretan ez zutela inolr gehiago onartuko. Hirurogeita hamar lagunetik gora sartu ginen. Unibertsitate kafetegi moduko areto handi batean jesarri gintuzten. Orduan traje dotoreaz jantzitako gizon batek esan zigun lehen-dabizi bi istorio entzungo genituela, saioaren formatua ulertzeko. Irratiarekin sinatu beharko genukeen kontratuaren alde legalez ere mintzatu zen.

Argiak pixkanaka moteldu ziren eta aretoa isilik geratu zen, zinema bat balitz bezala. Lehiatzaile gehienek zigarroak piztu zituzten eta laster ke geruza lodi batek bildu gintuen. Neska baten istorioa entzuten hasi ginen. Haren ahotsa garbi heltzen zitzaigun aretoko lau izkinetatik. Esan zigun nola talde islamista batek bere senarra, polizia zena, eduki zuen gatibu luzaroan, eta nola hilketa sektarioak hasi zirenean hiltzaileek haren gorpua bidali zioten ustelik eta buru barik. Argiak berriz piztu zirenean, ana-

basa sortu zen. Denak zeuden berbetan aldi berean, liztor mordo baten moduan. Askok iseka egiten zioten andrearen istorioari eta esaten zuten eurek istorio arraroago, krudelago eta zoroagoak zekizkitela. Andre zahar bat ikusi nuen, laurogeita hamarretatik gertukoa, eskua mespretxuz astintzen eta murmurikatzen: «Eta hori da istorio bat? Neure istorioa harri bati kontatuko banio, bihotza apurtuko litzaioke».

Traje dotoreko gizona itzuli zen eta baretzeko erregutu zien lehiatzaileei. Berba sinpleekin azaldu zuen istoriorik onenak ez zirela nahitaez beldurgarrienak edo tristenak, egiazkotasuna eta narrazioaren estiloa zela axola zuena. Esan zuen istorioek ez zutela zertan izan gerrari eta hilketei buruzkoak. Ni atsekabetu nintzen esan zuenarekin, eta konturatu nintzen lehiatzaile gehienek ez ziotela kasurik egin. Elefante baten tamainako gizon batek honela xuxurlatu zidan belarrira: «Pitokeriak, txoropito batek esanak. Istorio bat istorio bat da, ederra izan edo pitokeria hutsa izan».

Argiak berriz ere moteldu ziren eta bigarren istorioa entzuten hasi ginen.

—Niri kaka jaten ematen aurkitu zuten. Astebete zeraman kaka arrozarekin, patata purearekin eta zoparekin nahasten. Ni ume horizta bat nintzen, hiru urtekoa. Aitak mehatxu egin zion dibortzioarekin baina ez zion kasurik egin. Bihotza gogortua ziztaion betiko. Ez zidan barkatu egin nuena eta nik ez dut egundo ahaztuko zein krudela zen. Umetokiko minbiziaz hil zenerako, bizitzako trumonadek urrunera eramana ninduten. Herrialde-tik ihes egin nuen upelarena gertatu eta gero, mespretxagarri, garaturik, beldurrak paralizatuta. Aitari agur esan nion gauean, kanposantura joan ginen. Koranaren lehen atala irakurri genuen osabaren hilobiaren aurrean. Besarkada eman genuen eta diru mordoxka bat jarri zidan eskuan. Musu eman nion eskuan eta desagertu egin nintzen.

»Kirkukeko alde pobrean bizi ginen. Auzunean ez zegoen estolderiarik. Jendeak putzu septikoak egiten zituen etxeetako patioetan hiru dinar ordainduta. Nozad barazki saltzaile kurdoak zen auzunean halako putzuak egiten zituen bakarra. Nozad hil

zenean haren seme Mustafak hartu zuen lana. Nozad kiskal-kiskal eginda aurkitu zuten bere dendan, gau batean sutea izan ondoren. Inork ez daki zertan zebilen Nozad gau hartan. Batzuek diote haixia erretzen zegoela. Aitak ez zuen sinesten. Edozelako ezbeharrak gertatzen zela ere, hau zen haren atsotitz kutuna: «Mundu pasakor honetan egiten dugun guztia idatzita dago, aurrez ezarria». Beraz, umezaroan uste nuen «gure bizitza» testulibururen batean edo egunkari dendan gordeta zegoela. Aitak nire umezaroa salbatu gura zuen bere baitan zeukan ongini eta maitasun guztiarekin. Eskuzabala zen besteekin eta bizitzarekin, oraindik ere harritzen nauen modu batean. Santu bat ematen zuen giza hiltegi baten erdian. Ia urte birik behin ezbeharrak jotzen gintuen. Baina aitak ez zuen sinetsi gura patuak halako madarikazio misterioak ekar zezakeenik. Beharbada halabeharri leporatzen zion. Alde guztietatik zetozkigun erasoak: ezezagunetik, errealitateetik, Jainkoarengandik, jendearengandik, eta are hildakoak ere itzultzen ziren guri oinazea ematera. Aita saiatu zen nire krimena hainbat modutan estaltzen, edo gutxienez amaren gogotik ezabatzen. Baina huts egin zuen. Azkenean amore eman zuen. Denboraren esku utzi zuen suntsitze lana, hondamendia ezabatuko zuelakoan.

»Munduko hiltzailerik gazteena izango nintzen agian: bere krimenaz ezer gogoratzen ez zuen hiltzaile bat. Niretzat behintzat istorio bat baino ez zen, halako batean jendea entretenitzeko istorio huts bat. Konturatu nintzen edonork idazten, intonatzen edo kantatzen zuela nire krimenaren istorioa gogoia zuen bezala. Garai hartan aita ez zebilen ozpinetakoen negozioan. Tanke gidaria zen eta gerrako lehen urtea zen.

»Ama aitari alamera ematen zebilen hirugarren umea izateko, baina aitak ez zuen nahi gerragatik, izua baitzion. Nahiko eroso bizi ginen. Aitak hilero bidaltzen zuen behar beste diru janarirako, arroparako eta errentarako. Amak lo ematen zuen denbora, edo izekori bisita egiten, eta egun osoan harekin berbetan oihalaren prezioaz eta gizonen joera apatsuz.

»Udan ama ametsezko mundu batera aldentzen zen. Ez zuen entzuten, ez barbarik egiten, ezta begiratzen ere. Eguerdiko be-

roak akabatu egiten zuen. Hamabietan bainu bat hartzen zuen eta gero lotan egoten zen biluzik bere gelan, hildako huri¹ baten moduan. Gaua zetorreanean bizitasun pixka bat berreskuratzen zuen, komatik atera balitz bezala. Bere telenobela kutuna ikusten zuen, eta albistegiak, non presidenteak dominak ematen zizkien soldadu heroikoei beren adoreagatik, agian aita haien artean ager zitekeelakoan.

»Eguerdi batean ama lo geratu zen beso eta hanka zabalik sa-
baiko haizagailuaren azpian. Anaia eta biok —ni baino urtebete
gazteagoa zen— patiora irten ginen isil-ostuka. Han ez zegoen ezer,
ezpada piku bakarti bat eta putzu septikoaren estalkia. Gogoan
dut senideren bat hiltzen zenean edo ezbararren batek jotzen gin-
tuenean, ama pikua azpian negar egitera joaten zela. Putzuaren
ahoa sukaldeko erretilu zahar batez estalita zegoen, gainean harri
handi bat jarrita bertan eusteko. Guri, anaia eta bioi, kostatu egin
zitzaigun harria mugitzea. Gero harritxoak botatzen hasi ginen
putzura. Gure jolas kutuna zen. Umm² Alaak, gure auzokoak,
paperezko barkuak egin ohi zizkigun eta guk kaka putzuaren
gainazalera botatzen genituen.

»Diote anaia bota nuela putzura eta alde egin nuela etxeko
teilatura, oilategian ezkutatzera. Hazi nintzenean galdetu nien:
«Ez ote zen bera jausiko, eta nik beldurtuta alde egin?». Esaten
zuten: «Zuk zeuk aitortu zenuen». Beharbada diktadorearen
poliziak legez galdekatuko ninduten. Ez naiz ezertaz gogoratzen.
Baina beren istorioak kontatzen ibiltzen ziren gustuko film baten
argumentua azaltzen baleude bezala. Auzoko guztiek hartu zuten
parte erreskatean. Ezin izan zuten aurkitu hilean behin auzuneko
putzu septikoak husteru etortzen zen kamioia. Aurkitu zuten guz-
tia erabili zuten putzutik kaka ateratzeko: lapikoak, balde handi
bat eta beste ontzi batzuk. Lan neketsua eta nardagarria izan zen,

¹ Huri: Koraneko paradisuko birjina eder bat.

² Umm Alaa: arabieraz pertsoneri deitzeko erabiltzen den formula bat (beren izenez deitzeaz gain) da esatea noren amak («umm») edo aitak («abu») diren. «Umm Alaa»=Alaaren ama; «Abu Alaa»=Alaaren aita. Euskararako itzultzailearen oharra.

tortura bat kamera geldoan. Uda mina zen, eta kiratsak areagotu egiten zuen horrorea eta espantua. Eguzkia ezkututzerako atera zuten: ume hil bat kakazko hil mihise batean bilduta.

»Aita berandu heldu zen frontetik. Osabak gutun bat idatzi zion eta nire anaia lurperatzeko antolaketaz arduratu zen. Muinoko umeen kanposantuan lurperatu genuen. Munduko kanposanturik ederrena izango zen agian. Udaberrian kolore eta mota guztietako basaloreak hazten ziren bertan. Urrunetik hilerriak zuhaitz koloretsu erraldoi baten koroa ematen zuen: bere lurrin sendoa kilometroetan hedatzen zuen kanposantu bat. Handik astebetara gure auzoko Umm Alaak atea ireki eta gure ama ikusi zuen. Tristeziaren handiak nahastua zion burua. Kaka ipinia zuen ontzitzo batean eta nire janariarekin nahasten zebilen oso astiro plastikozko koilara batez, eta gero horrekin niri ahoa betetzen, negarrez.

»Aitak osabarekin bizitzera bidali ninduen eta nolabaiteko errefuxiatua bihurtu nintzen. Ostiraletan bisitan joaten nintzen etxera, izekok lagunduta, ama begipean izateko. Hankarik hanka dabilen pilotaren moduan sentitzen nintzen. Halaxe eman nituen sei urte, zer gertatzen ari zitzaidan ulertzeko ahaleginetan. Ikasi behar izan nuen zer esan gura zuten haien sentimenduek eta haien hitzek, une oro kate arantzadun bat neramala idunean. Ohe iltzedun batean narras ibiltzea bezalakoa zen. Putzu septikoa nire haurtzaroko gurutzea izan zen. Behin baino gehiagotan entzun dut bizitzak aurrera egiten bide duela, jarraitzen duela, abante doala itsasoan, edo, okerreanean, tirriki-tarraka narras. Nire bizitza, aldiz, petardo baten moduan lehertu zen Jainkoaren zeruan, dirdiraxo bat Haren bonbardaketaren ortzi ahaltsuan. Haurtzaroko eta nerabzaroko gainerako urteak denei tentuz zelatan igaro nituen, ilunpean gordetako frankotiratzaille baten gisan. Zelatan eta tiro eginez. Nire bizitzako horroreei kontra egiteko, beste amets gaizto batzuk, irudimenezkoak, askatu nituen. Ama eta beste batzuk torturapean irudikatzen nituen, eta eskolako liburuan kamioi erraldoiak marrazten nituen umeen buruak zanpatzen. Oraindik gogoratzen dut presidentearen argazkia gure ariketa liburuen azalean. Uniforme militarraz zegoen, irribarrez, eta argazkiaren

azpian hitz hauek zeuden: «Lumaren balak erriflearenak bezain hilgarriak izan daitezke».

»Asto batek tiratutako gurdi batean kerosenoa ekartzen zuten. Auzuneko bidexketatik pasatzen zen neguan. Umeak atzetik joaten zitzaizkion, astoari zakil itzel hura tente jartzen ikusteko. Nik begiak ixten nituen eta astoaren zakila irudikatzen nuen, higuingarri eta beltza, gure amaren eskumako belarritik sartzen eta ezkerrekotik irteten. Aldarrika hasten zen laguntza eske minaren minez.

»Gerra amaitu baino urtebete lehenago gure aitak ezkerreko hanka eta barrabilak galdu zituen. Horrek ama behartu zuen ni etxean berriz hartzera. Aitak erabaki zuen bere aitaren eta bere arbasoen lanbidera itzultzea: janaria ozpinez ontzera. Gure aitaita ozpinetakoan saltzailerik famatuena izan ei zen Najaf hirian. Erregeak berak hiru aldiz egin ei zion bisita. Etxera itzuli nintzen eta aitaren eskumakila eta zerbitzari esaneko jarri nintzen. Zorionsua nintzen, aita ontasunaren mirari bat zelako. Bizitzan sufritutako guztia gorabehera, jarraitzen zuen bere barruari leial izaten, minak ez baitzion hura okertu nolabait. Hanka artifizial bat jarri zioten eta maitatzeko gaitasuna handitu egin bide zitzaion. Ama mimatzen zuen eta opariz betetzen zuen: urrezko idunekoak, eraztunak eta lorez brodatutako barruko arropa.

»Aitak azulejuz estali zuen patioa eta porlanezko estalki bat egin zuen putzu septikorako. Pikondorako tokia utzi zuen baina hil egin zen, aitak ozpinetakoetan erabiltzen zuen gatzunagatik. Nik hamasei urte nituen amak haren pean negar egin zuenean azkenekoz. Bagdadeko gobernuak autobiderako errepide bat egin zuen eta kanposantu zaharra kendu zuten. Haren aitaren hilobia hantxe zegoen. Luzaroan triste egon ginen aitaitaren hezurak galtzeagatik.

»Patioa beteta zegoen ozpin ontzerako plastikozko upelekin, eta pepinoz, alberjiniak, piper berde eta gorritz, azaz eta azaloz betetako zaku pilekin, gatz, azukre eta espezia poltsekin, ozpin botilekin eta melaza latekin. Urez betetako lapiko handiak ere bazeuden, beti pol-polka, eta horra espeziak botatzen genituen, eta gero barazkiak, banan-banan. Gure aita ez zen bere aita bezain fina, eta are

gutxiago bere aitaita bezain. Metodo berriak probatzen hasi zen. Bizitzaren parte handi bat tanke artean emana zuen eta ahaztuak zituen familian ozpin ontzerako erabilitako errezeta asko. Tankeak borlak, hanka *eta* bere arbasoen lanbidea kendu zizkion.

»Orduetan egoten nintzen amaren aurrez aurre jesarrita, al-berjiniak zatitzen edo pepinoak berakatzaz edo apioz betetzen. Sugedorriak baino mihi pozoitsuagoa zeukan. Udak orain ez zion enbarazu egiten. Behi potolo bat eginda zegoen, eguzkiak errea, mihi arinekoa, eta erretzaile amorratua. Belar gaiztoak haziak zitzaizkion bihotzean. Jendea errukitu egiten zitzaion, bera bezain berba pozoitsuekin. «Andre gaixoa», esaten zuten. «Gizona inpotente eta seme-alabarik ez, adur gaiztoko txoria baino ez». Txoria, hori nintzen ni, eta adur txarraren zantzu guztiak ageri nituen. Aita lanpetuta zegoen beti kontuak egiten eta merkatuko dendariekin tratuan eta upelak kamioneta zaharrean garraiatzen. Ilunabarraren ostean birrinduta jausten zen. Afaltzen zuen, otoitz egiten zuen eta ozpinetakoen arazoak kontatzen zizkigun, gero hanka artifiziala kentzen zuen eta ohera joaten zen bere emazte ile urdinduari atzamarrez kilika egitera.

»Kuwaiten kontrako gerra hasi zenean, armadara joan beharko nintzen. Aita eta osaba nire zerbitzu militarren kontua eztabaidatza jesarri ziren. Osabak ez zituen inoiz ikusi fronteko horroreak Iraneko gerran. Hiriguneko Segurtasun Sailean zegoen lanean. Aitak erabakia hartu zuen: ez ninduen emango hiltzera.

«Zelan utziko diet nire seme bakarra hiltzen?». Osabak harekin eztabaidatu zuen, saiatu zen azaltzen bere ilobak izkina eginez gero banderaren zerbitzuari, horrek zelako ondorioak izango zituen berarentzat Segurtasun Sailean («Nahi duzu gu guztiok exekutatzea... gu *eta* emakumeak?»). Aitak tinko eutsi zion bereari. Osabak mehatxu egin zuen berak atxilotuko ninduela zuzenean armadara ez banindoan, baina aitak etxetik bota zuen. «Entzun», esan zuen, «egia da gizon baketsua naizela, baina hau nire semea da, nire haragiaren zati bat. Tematzen bazara, sama moztuko dizut». Gau hartan osaba edanda zegoen eta zezena baino amorratuago. Irain gehiago oihukatuz joan zen. Aita zutundu zen, otoitz egin

eta berehala baretu zen. «Jainkoak gorde nazala deabru deungarengandik», esan zuen. «Anaia dut. Mozkor berbak baino ez dira izan. Ezagutzen dut. Bihotz ona dauka».

»Preso egon nintzen etxean hiru hilabetez. Kaleak polizia militarrez beteta zeuden eta segurtasun agentzia guztietakoez. Aitak erabaki zuen egunez ez nuela lanik egingo, auzokoei niri erreparatu barik. Gauzez patiora irteten nintzen isil-ostuka lapur bat bezala, argi bat eskuan. Alberjina, pepino eta piper zakuen ondoan jesartzen nintzen, buru belarri lanean eta nire bizitzaz pentsatzen. Araka³ urarekin nahasten nuen esne lata huts batean aitak ez harrapatzeko, mozkortzen nintzen eta mokoka ibiltzen nintzen tanke gidari hark eskaintzeko zeuzkan ozpinetako mota ugarietan. Alkohola nire odolean barreiatzen zen eta ni kata-marka joaten nintzen umetxo bat legez putzu septikora, belarria porlanezko estalkian jarri eta entzuten geratzen nintzen. Barreka entzuten nuen. Begiak ixten nituen eta haren sorbaldan biluziaren ukitua irudikatzen nuen. Azala bero zuen, hainbeste olgeta eta ibileraren ondorioz. Ez nuen haren aurpegia gehiago gogoratzen. Amak zeukan haren argazki bakarra eta ez zion inori arrimatzen uzten. Armairuan zeukan ezkutatuta. Pauma batez apaindutako egurrezko kutxatxo batean jarria zuen.

»Aita goiz alban jaikitzen zen. Lo aurkitu ohi ninduen nire lekuan. Eskua jartzen zidan bekokian eta ni itzarri egiten nintzen eskuaren ukituaz. «Joan barrura, seme. Egin otoitz. Jainkoak urgatz zaitzala». Ondo jabetuta zegoen araka edaten nenbilela, baina berarentzat erlijioa ez zen ez inongo profetaren hitza, ez inongo lege santua ez inongo debekua. Erlijioa zen bertutea maitatzea, berak esan ohi zuen bezala inorekin lege islamikoaz hizketan zebilenean. Ez zait egundo ahaztuko futbol zelaian negarrari eman zionean. Umeak ikaratu zituen eta ni lotsatu eta aztoratu egiten nintzen bera negarrez ikustean. Baath Alderdikoei hiru gazte kurdu exekutatuak zituzten futbol zelaitik gertu. Egurrezko zutoinei lotu zituzten eta tiroka hil zituzten herriko jendearen begien aurrean.

³ *Arak*: anis gustuko pattar destilatua tradizional bat.

Hil aurretik, bozgorailuetatik iragarri zuten: «Hauek traidoreak eta terroristak dira, eta ez dute merezi lur honen oparotasunetik jatea, ez bertoko ura edatea ez airea arnastea». Ohi bezala, Baathekoek gorpuak jaso eta zutoinak bertan utzi zituzten, gertatutakoa denei gogorarazteko. Aita plazara etorria zen ni zinera eroateko. Txoratu egiten zuten Indiako filmek. Ikusi zuenean ate bati zutoin bat falta zitzaiola konturatu zen zutoinak hartuta genituela ateak egiteko. Odol arrasto sikuak zeuden egurrean. Aitak negarrari eman zion umeetako batek esan zuenean: «Oraindik zutoin bat falta zaigu. Beste bat exekututzen badute horixe hartuko dugu».

»Udako iluntze batean berriz ere inbaditu gintuzten. Osaba ate joka etorri zen zoro baten moduan. Ama dirua zenbatzen zegoen eta tomate saltsako pota huts batean sartzen. Aita eta biok xakean genbiltzan. Erraz irabazi ahal zidan, baina gustatzen zitzaion hasieran bere peoiak jatearen plazera ematea. Horiek eta gainerako piezak sakrifikatzen zituen trukean ezer hartu barik, erregea eta erregina bakarrik gordez. Orduan nire piezak jaten hasten zen bere erregina beltzarekin xake-matea egin arte.

»Aita patiora irten zen osabari harrera egitera. Amak xala jantzi eta atzetik joan zen. Putzu septikoaren ondoan zeuden denak eztabaidan, urduri baina ahapeka. Nik leihoaren kristalaren bestaldetik ikusten nituen. Oraindik ere zorabiatuta nengoen bezperako edanagatik. Gaua heltzeko zain nengoen berriz ere mozkortzeko. Ama arineketa joan zen eskailerapetik zeozer hartzera. Aitak eta osabak azaloz betetako upel bat husteari ekin zioten bien artean. Ama mailu bat eta iltze bat hartuta itzuli zen. Aitak upela lurrean etzan eta zuloak egiten hasi zitzaion iltzeaz han eta hemen. Ez zeukan hanka artifiziala jarrita. Saltoka zebilen upelaren inguruan hanka baten gainean, olgetan edo dantzan balego bezala. Osabak kamioneta aparkatu zuen ate nagusiaren aurrean eta ozpinetakoen upelez bete zuen. Orduan aita egongelara etorri zen izerditan.

«Entzun, semea», esan zuen. «Ez dago astirik. Osabak jakin du polizia eta alderdia etxe guztiak miatzen hasiko direla egunsentian. Osabak adiskide leialak dauzka Auran herrian. Bertan geratu egun batzuk gauzak baretu arte».

Upel hustuan sartu nintzen eta amak tinko jarri zion estalkia. Aitak eta osabak kamionetara igo ninduten.

»Aitak arrazoia zuen. Anaiak ziren azken batez, eta bazekiten elkarren gogoia irakurtzen. Osabak zoro baten moduan gidatu zuen kaleetan zehar niri bizia salbatzeko. Hiriaren kanpoaldera ondo heltzeko moldatu zen, baina probintziako beste hiri eta herrietara joateko errepide guztietan kontrolak zeuden. Aukera bakarra bigarren mailako errepideak hartzea zen. Hiriaren ekialderantz zegoen gari sailen arteko errepide bat aukeratu zuen. Agian errepidez erratu zen panikoaren panikoz. Hiriko umeek ere bazekiten gari sailetatik hara muino malkar eta harritsuak kate bat zegoela. Beharbada, bere sailean torturatutako jendearen irudiek arrakalatua zioten garuna. Beharbada, bere lankideak irudikatzen zebilen bera azido sulfurikoz betetako tankeetan disolbatzen, eta lerroburu hau: *Segurtasuneko funtzionario batek ilobari ihes egiten lagundu dio upel batean ezkutatuturik*. Gari sailetan barna gidatzen zihoala, apenas kontrolatzen zuen bolantea. Errepideko gorabeherak saihestasun apurto behar zizkidaten eta upeleko zuloetatik kamionetak altxatutako hautsa baino ez zen sartzen. Upelari hatsa zerion, auzuneko zabortegiko katu hilena bezalakoa. Atera ote zizkion osabak jendeari azazkalak, erauzi ote zizkion begiak eta azala burdin goriaz kiskali Segurtasun Saileko sotoetan? Beharbada bere biktimen arimek gidatu zuten trokara, beharbada neure arima gaiztoak, edo beharbada mundu iragankor honetako gauza pasakor eta misteriotsu guztiak aurrez ezarrira dauzkan arimak.

»Zazpi upel zeutzan sakanaren zuloaren iluntasunean, lo dauden animalien antzera. Kamioneta iraulia zen osaba muineko bigarren bihurtune harritsuak hartzen saiatu zenean. Upelak trokara amilduak ziren kamioiarekin batera. Gaua konorte barik eman nuen upelaren barruan. Goizeko lehen orduetan eguzkiaren izpiak upeleko zuloetatik sartu ziren, itolarrian dagoen gizonari botatako salbamendu sokak legez. Ahoa odolez beteta neukan eta eskuak dardarka. Minez eta beldurrez nengoen. Eguzkiaren izpiei beha geratu nintzen, zorabiatzeko moduan gurutzatzen baitziren upel barruan. Kontzientzia hankaz gora jarria zidan kaos hartatik ihes